

.- HOBKUNTZARAKO ESKU HARTZE PLANAREN EDUKIA ETA EGITURA.

Ikastetxeko txostenean antzeman diren hobekuntza-proposamenak dira *hobekuntzarako esku hartze-planaren* abiapuntua **(1)**. Proposamen horietatik abiatuz, eta hausnarketa zehatza egin ondoren **(2)**, esku hartzeko eta jarduteko proposamenak selekzionatzeko, lehentasunak emateko eta planifikatzeko prozesuan zentratu beharko da.

(1) Aurreko ikasturteko Hobekuntza Plana ere kontuan hartu behar da eta, bertatik abiatuta, egiaztatu aurreikusitakoa aldatu edo osatu behar ote den. Hobekuntza Plana ikasturtero egin behar den arren, jarraikortasunari erreparatuta gauzatu beharko litzateke, eta horrenbestez, norabide aldaketak saihestu eta hobekuntzak burutzeko edota gorpuzteko eta ikastetxeak Plan horretan adierazitakoa bere egiteko eta sentitzeko denbora eman.

(2) Hausnarketa, eraginkorra izan dadin, ikastetxeko estamentu guztiek konpartitua izan behar da. Hartara, klaustro osoak hartu behar du parte erabakiak hartzeko prozesuan; berak gauzatuko baititu. Hobekuntza prozesua konplexua da, denbora eta lana eskatzen ditu eta klaustroaren konpromisoa behar du; horrenbestez, bai hausnarketa aldia bai aldaketa aldia beharrezkoak dira. Horrek guztiak prozesua luzatzea badakar ere, askoz eraginkorragoa izango da emaitza. Izan ere, ez da ahaztu behar hobekuntzak ez diola eragiten, soilik, ikasmila, ziklo edo etapa bati ikastetxe osoari baizik; beraz, ikastetxe ikuspegia nagusitu behar da.

Esku hartzeko Plan honek bi atal ditu:

1. Esku hartzeko eta hobekuntzarako proposamenak selekzionatzea eta lehentasuna ematea

Ikasleek lortutako emaitzak hobetzeko eragin handiena izan dezaketen hobekuntza-ekintza horiek aukeratzea gomendatzen da**(3)**:

(3) Halaber, diagnostiko-ebaluazioaren emaitzez gain, irakasleen behaketetan oinarrituta, ikastetxeak antzemandako eta hobetu beharreko alderdiak ere kontuan hartu beharko dira Hobekuntza Plana zehazteko eta hobekuntza-ekintzak eta horiek abiarazteko jarduerak hautatu eta lehenesterakoan.

Lan hau egiteko irizpide orokor gisa, ondorengoak hartu beharko lirateke kontuan: **(4 eta 5)**

- Funtsezkoa denari, eta ez bigarren mailakoari, lehentasuna ematea.
- Eragin handiagoa eta neurtuak eta ebaluatua izateko aukera gehiago dituzten ekintzak aukeratzea **(6)**.
- Irakasle kopuru handi bat hartzen duten eta beraiei eragiten dieten lan-proposamenak selekzionatzea.

- Hezkuntza-komunitatearen adostasun zabala duten jardueri lehenatasuna ematea.
- Hobekuntzen egonkortasuna bermatzea (7).

(4) Arrakasta lortzeko, behar-beharrezkoa da ikastetxeko kide guztiek parte hartu behar dutela sentitzea eta horren kontzientzia izatea. Hartara, taldeka ardaztutako lan-sistema antolatu daiteke irakasle guztiak inplikatzeko, informazioa denei helarazteko, eta elkarrekin erabakiak hartzeko. Denek adostutako eta onartutako erabakien menpe egon behar dute hobekuntzarako ekintzak eta jarduerak hautatzeko irizpideak. Irakasle guztiek, zein bere arlo edo irakasgaiaren bitartez, islatuta ikusi behar dute beren burua Hobekuntza Planaren baitan.

(5) Erabateko hausturarik edo aldaketa nabarmenegririk gabe ikastetxean ezarri daitezkeen jarduerak proposatu behar dira, eta horrela, ikastetxean garatzen ari diren berrikuntza eta prestakuntza proiektuei koherentzia eman. Komenigarria litzateke ikastetxeko proiektuak kontuan harturik, hezkuntza komunitatearen gehiengoaren arteko lotura bermatuko duen jardunbidea edota ikastetxearen nortasunaren ezaugarritzat hatzeko baliagarria izan litekeena bilatzea (adibidez, ikas komunitateak...).

(6) Hobekuntza-ekintzak zenbat eta zehatzagoak eta behagarriagoak izan, orduan eta errazagoa izango da ikastetxeko bizitzan izan duten eragina ebaluatzea.

(7) Horregatik, garrantzitsua da aldaketa horiek ikastetxean pixkanaka-pixkanaka sartzea, ahaztu gabe urteroko plangintza dela eta ez duela urte batetik bestera goitik beherako aldaketarik zertan islatu Horregatik, batzuetan, ekintzak errepikatu egin beharko dira harik eta ikastetxeak aldaketa horiek guztiz bere egin arte.

Ekintza edo hobekuntzarako esku hartze-proposamen horiek ikastetxearen bizitzaren esparru desberdinei eragingo diete (8 eta 9):

- *Curriculum-garapenaren eta garapen metodologikoaren esparrua*; hots, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari, gelako irakaskuntza-praktikari, baliabide eta material didaktiko eta teknikoei eta ebaluatzeko irizpide eta tresnei eragiten diena.
- *Antolaketa eta funtzionamendu-esparrua*, irakasle-taldeen koordinazioari, taldekatzei, orduen antolaketari edo funtzionamendu-arauei lotua.
- *Komunitate-esparrua*, ikastetxean dauden harremanekin eta elkarbizitzarekin eta ingurunearekiko eta familiekiko harremanekin zerikusia duena.
- *Garapen profesionalaren edo prestakuntzaren esparrua*, irakasle-taldeen prestakuntza-premiei eta premia profesionalei lotuak.

(8) Hobekuntza Planaren koherentzia lortu behar da. Hartara, komeni da esparru desberdin horietan ikustarazi ahal diren ekintzak proposatzea. Horren arabera, ikas-irakaskuntza prozesuei lotutako erabakiek **(garapen metodologikoaren esparrua)** irakasleen arteko koordinazioari eragingo diote **(antolaketa esparrua)** eta prestakuntza orokorra eta konpartitua eskatuko dute **(garapen profesionalaren esparrua)**. Horrek guztiak eragina izango du ikastetxe barruko erlazioetan eta bertako bizitzan **(komunitate esparrua)**. Horretaz gain, hobekuntza-ekintzen eraginkortasunaz hausnartu beharko da. Eta horrek lan handia eskatuko du; izan ere, proposatutako ekintzen eraginkortasunaren inguruko hipotesiak egin beharko dira eta ekintza horien eragina egiaztatu beharko da.

(9) Berriz ere gogorarazi behar da Hobekuntza Plana ikasturterokoa dela. Horregatik, errealista izan behar du, eta lehenetsunak ezarri. Beraz, egokiagoa da urrats txikiak proposatzea eta aurrerapenak pixkanaka-pixkanaka egitea, ikasturtez ikasturte eskola arrakastara heltzeko urratsak emanez.

1) Hobekuntza-ekintzen plangintza (10).

Ondorengo puntuak konkretatuko dira hobekuntza-ekintza edo proposamen bakoitzerako:

- Egin beharreko lan edo jarduerak.
- Lortu beharreko helburuak.
- Ekintzaren arduradunak.
- Denborak (jarduerak epe motz, erdi eta luzera bereiziz).
- Behar diren baliabideak.
- Ebaluazioa: jarraipen-adierazleak (prozesuan zehar emaitzak neurtzen dituzte) eta lorpen-adierazleak (azken emaitzak neurtzen dituzte).

(10) Ikastetxeko dokumentuek, hala nola, Hezkuntza Proiektuak, AJAk... hobekuntzarako esku hartze-planaren aplikaziotik etorritako aldaketak eta egindako aurrerapenak islatu behar dituzte.

Ondoren aurkezten da *hobekuntzarako esku hartze-planak* gauzatzeko tresna.

II. HOBEKUNTZARAKO ESKU HARTZE PLANA

IKASTETXEA:
HERRIA:
IKASTURTEA:

KODEA:

1. HOBEKUNTZA-EKINTZAK SELEKZIONATZEA ETA LEHENTASUNA EMATEA

HOBEKUNTZA-EKINTZA (1)(*)	Lotura duen OINARRIZKO GAITASUNA	ESPARRUA (3)	LEHENTASUNA (4)

HOBEKUNTZA-JARDUEREN PLANIFIKAZIOA

EKINTZA	Atazak edo jarduerak (5)	Lortu beharreko helburua (6)	Ekintzaren arduraduna/k (7)	Denborak (8)	Baliabideak (9)	Ebaluazioa (10)	
						Jarraipenaren adierazleak	Lorpenaren adierazleak
1.							
2.							
3.							
4.							
5.							
...							

Hobekuntzarako esku hartze-plan hau ikastetxearen Klaustroak -----(-e)an onartutako urteko planean sartu da eta, -----(-e)an aurkeztu zaio OOGri/Eskola Kontseiluari.

Zuzendariaren zigilua eta sinadura
Data

GLOSARIOA ETA TERMINOEN AZALPENA:

(*) Asteriskoa jarri behar da jarraitzen duten eta 2009-2010 ikasturtetik datozen ekintzetan.

(1) Aurrera eraman behar den hobekuntza-ekintzaren proposamena enuntziatzea, ahal izanez gero infinitiboan.

Hobekuntza-ekintza

- Hobekuntza-ekintzak zabalak izan behar dira eta jardueren bidez gauzatuko dira.
- Gomendagarria da ekintza gutxi proposatzea, bi edo nahikoak dira Hobekuntza Plana abiarazteko prozesua eta berorren ebaluazioa errazago egiteko.
- Hobekuntza-ekintza bakoitza, ahal izanik, oinarrizko gaitasunaren dimentsio batekin erlazionatuko da.
- Hobekuntza-ekintza batek esku hartze esparru desberdinei lotutako jarduerak bildu ditzake.
- Arlo eta irakasgai guztietako irakasleek onartu eta bere egin behar dituzte hobekuntza-ekintza horiek.

(2) Ebaluatutako 5 gaitasunetako bat edo batzuk.

Lotura duen oinarrizko gaitasuna

- Oinarrizko gaitasunak elkarri lotuta daude; beraz, gaitasun baten garapenari laguntzeko ekintzek beste gaitasunak hobetzen lagunduko dute.
- Ebaluatu diren gaitasunak lehenetsi beharko lirateke; hala ere, ez dira ahaztu behar hobetu litezkeen beste gaitasunak, hala nola ikasten ikasteko gaitasuna edota giza- eta arte- kulturarako gaitasuna, nahiz eta ebaluatu gabe egon, ikastetxeak egoera aztertu eta horiek hobetzeko premiarik ikusi baldin badu.
- Gaitasunak arlo eta irakasgai guztietatik garatzen dira, beraz, gaitasunen garapena ez da lotu behar arlo edo jakintzagai jakin batzuen programazioarekin.

(3) E)1-ean agertzen diren lau esparruetako edozein.

Esparrua

- Hobekuntza-ekintza batek hainbat esparruri eragin diezaike (metodologikoa, garapen profesionala, antolaketa zein hezkuntza komunitate esparrua). Beraz, esparru horietan guztietan islatu daiteke edo ikastetxeak berak nabarmendu dezake bere iritziz jorratu behar duen esparrua, barne analisia eginda eta ikastetxearen ezaugarriak eta egoera kontuan harturik. Esaterako, ‘metodo zientifikoaren arabera metodologia-gidalerroak ezarri’ hobekuntza-ekintzak curriculum eta metodologia esparruari eta garapen profesionalaren esparruari dagokie.

(4) Ekintzaren garapenaren arabera: berehalakoa, epe erdira edo epe luzera.

Lehentasuna

- Ez dira nahastu behar lehentasuna eta prozesua burutzeko behar den denbora. Lehentasun handiko ekintzek denbora gehiago edo gutxiago beharko dute gauzatzeko.
- Lehentasunak antzemandako azaroak konpontzeko premia adierazten du, lehena izateko eskubidea markatzen du.
- Ekintzarik gehienek, gutxienez, ikasturte osoa beharko dute eraginkorrak diren ala ez ikusteko. Era berean, gerta liteke ikasturtez ikasturte ekintza bera proposatu behar izatea.

(5) Proposatutako ekintzarekin zerikusia duten ataza edo jarduera konkretuei buruzkoa.

- Ekintza bat ataza edo jarduera desberdinetan konkreta daiteke. Kasu honetan, ataza edo jarduera guztiek ekintza nagusiarekin izango dute zerikusia.
- Ikasteko prozesuak (kurtsoa, zikloa, maila...) edota irakastekoak, baita erabakiak hartzeko irakasleen koordinazioa ere, hobetzera zuzenduta dagoen adieraziko du ekintzak: materialen egokitzapena, lanaren antolaketa, egoera baten diagnostikoa, irakasleen prestakuntza...etab.

Atazak edo jarduerak

- Hobekuntza –ekintzak neurtu ahal izateko eta, horrenbestez, ebaluatu ahal izateko, jardueren edo atazen bidez gauzatuko dira.
- Hobekuntza-ekintzak gauzatzeko jarduerak esparru desberdinei lotuta egon behar dira.
- Jarduerak garatu eta gauzatzeko dituztenak irakasleak dira. Horregatik ez dira nahastu behar esku hartzean adieraziko diren jarduerak ikasgelan ikasleek burutuko dituzten jarduerekin. Esaterako, “askotariko ahozko testuak entzun” ikasleek egin behar duten jarduera da. Hobekuntza Planak baina, honela jaso beharko luke jarduera hori: “arlotan irakasgai guztietan askotariko ahozko testuak baliatuz, hainbat helburutarako jarduerak proposatu”
- Hobekuntza-ekintza berari lotutako jardueren eraginkortasuna bermatzeko ibilbide koherentea antolatu beharko litzateke. Hartara, abiapuntua praktikaren inguruko hausnarketa litzateke (**zer egiten dugu? Nola egiten dugu lan? Nola lantzen dut gai hori?**); hortik prestakuntza etorririko litzateke (**zer dakigu gai horren inguruan?**) eta azkenik, erabakiak elkarrekin hartu beharko lirateke (**zer egingo dugu?**).
- Jarduerak ahalik eta zehatzenak izan behar dira. Adibidez (2009-2010 ikasturtean aurkeztutako Hobekuntza Plan batetik hartuta):
 - ✓ **Hobekuntza-ekintza:** Arlotan irakasgai guztietan bakoitzari lotutako testuen ulermena bultzatzea.
 - ✓ **Jarduerak**
 - Arlotan irakasgai guztietan gehien erabiltzen diren testuak bildu.
 - Testu mota bakoitza lantzeko moduak eta uneak aztertu eta sekuentzia didaktikoetan txertatu.
 - Hartutako erabakiak ikasturtean zehar aplikatu.
 - Aurrez adierazitako ebaluazio adierazleak erabili eta egindako aldaketak ebaluatu.

(6) Helburua neurtu eta lortzeko modukoa izango da eta era zehatzean formulatuko da.

- Funtsean, ikasleek ikasteko prozesuaren alderdi bat hobetzeko definituko da helburua baina irakaskuntzaren beste helburu batzuei ere aurre egin diezaieke, erabakiak hartzeko irakasleen hausnarketari eta koordinaziori lotutakoei esate baterako.
- Helburu bat definituko da ataza edo jarduera bakoitzerako, jarduera bereko beste lan batzuenarekin bat etor daitekeen arren.

Lortu beharreko helburuak

- Kontuan hartu behar da helburuak Hobekuntza Planaren helburuak direla, beraz, ez dira ikaskuntza helburuak edo ikasleek lortu beharreko helburuak. “Hainbat erabilera eremutako testu idatziak ulertzea”, esaterako, helburu didaktikoa da, ikaskuntzari lotutako helburua, ikasleek lortu beharrekoa, alegia. Baina Hobekuntza Planari dagokionez, “Erabilpen eremu askotariko idatzizko testuen ulermena garatzea” litzateke helburua adierazteko modurik egokiena.
- Helburuak bat etorri behar dira jarduerak zehazterakoan proposatu den ibilbidearekin.
- Hobekuntza-ekintza osoa hartuko lukeen helburu orokor bat adierazi beharko litzateke.

Eredu moduan, Hobekuntza Plan batetik ateratako helburua eta jarduera zehatzak aurkezten dira:

Helburua: Ikasleek euskara-gaztelaniako idatzizko ekoizpenetan egiten dituzten akats-hutsuneak gainditzeko irizpideak zehaztea eta jarduera espezifikoak diseinatzea eta aplikatzea, ikasleek akats horiek zuzentzeko.

Jarduerak:

- ✓ Arlo eta irakasgai guztietan, ikasleek egiten dituzten idatzizko akatsen zerrenda egin.
- ✓ Ikasleek mailaka dituzten akatsak eta ziklo horretako ebaluazio-adierazleak kontutan izanik, hutsune nabarmenenak zuzentzeko irizpideak zehaztu.
- ✓ Zuzenketak egiteko era adostu eta zehaztu, ikasten ikasteko gaitasuna kontuan izanik.

(7) Ekintzaren arduradun edo koordinatzaileak pertsona edo kolektibo bat izan daitezke.

- Irakasle batzuk jarduera batean arduradun gisa agertzen badira, ekintzaren arduradun bakarra zehaztea komeni da. Irakasle arduradunak ekintzaren garapena eta ezarpena jarraituko ditu: esleitutako denborak betetzen diren, planifikatutako baliabideak lortu edo praktikan jarri diren...

Jardueraren arduraduna(k)

- Hobekuntza Planeko jardueren kudeaketa pertsona baten edo talde baten ardura izanik ere, irakasle guztiak inplikatu behar dira.
- Hobekuntza Plana gauzatu ahal izateko ardurak banatu egin behar dira, ahaztu barik inplementazioa irakasle guztien egitekoa dela.

(8) Ekintza bakoitzerako denbora konkretatu behar da.

- Denborak ekintzaren hasiera, bukaera eta maiztasuna markatuko ditu.

Denbora

- Jarduerak inplementatzeko denbora epeari egiten dio erreferentzia, ez ordea ikasleek ekintza hori gauzatzen emango duten denborari.
- Eredu moduan, aurreko puntuan aipatu diren jarduerak inplementatzeko denboralizazioa aurkezten da:
 - Arlo eta ikasgai guztietan gehien erabiltzen diren testuak bildu. **Maiatza-ekaina**
 - Testu mota bakoitza lantzeko moduak eta uneak aztertu eta sekuentzia didaktikoetan txertatu. **Iraila-urria**
 - Hartutako erabakiak ikasturtean zehar aplikatu. **Azaroa-maiatza**
 - Aurrez adierazitako ebaluazio adierazleak erabili eta egindako aldaketak ebaluatu. **Maiatza-ekaina**

(9) Ahal izanez gero, ikastetxeak dituen baliabideak planteatu behar dira.

- Baliabideak aukeratutako helburua lortzera bideratuta egongo dira.

- Baliabide bakoitza konkretatzea eta era abstraktuan ez formulatzea inportantea da. (Adibidez: “Matematiketako 20 oinarrizko buruketen bilduma bat biltzea”, “Matematiketako buruketak biltzea” esan beharrean).

Baliabideak

- Ikastetxeak erabil ditzakeen eta eskuragarri dituen baliabideak dira.
- Giza baliabideak eta baliabide materialak izan daitezke (adibidez, kanpoko adituen aholkularitza).
- Halaber, nabarmendu beharko lirateke ikastetxeak dituen baliabideak eta beharko lituzkeenak.

(10) Lorpenaren adierazleak ekintza bakoitzaren azken helburua lortzearekin lotuta daude eta lortu nahi den azken mugarrria markatzen dute; jarraipenaren adierazleak, aldiz, mugarrri ertainak markatzen dituzten adierazleak dira eta ataza edo jarduera planifikatu zen moduan betetzen ari den zehazteko balio dute.

- Lorpenaren eta jarraipenaren adierazleak ahalik eta modurik zehatzenean formulatuko dira. Adibidez: “% 20ko gehikuntza du liburutegian maileguan utzitako liburuen kopuruak”.
- Jarraipen adierazleek hobekuntza-planean zehaztutako ekintzen aplikazioa kontrolatzeko tresnak dira. Prozesuaren garapena neurtzen dute, hau da, aurreikusitako ekintzak martxan diren ala ez.

Jarraipenaren adierazleak eta Lorpenaren adierazleak

- Jarraipen adierazleek eta lorpen adierazleek ez dute ikasleek egiten duten aurrerapena ebaluatzen.
- Jarraipen adierazleek Hobekuntza Planeko jardueren aplikazioa kontrolatzeko balio dute. Prozesuaren garapena neurtzen dute, hau da, Hobekuntza Plana abiarazi den ala ez.
- Lorpen adierazleek, berriz, azken emaitzak aztertzen dituzte. Ez dute baloratzen jarduera horien arrakasta ezta eragina ere.
- Adierazle horien helburua ez da, inola ere, ikasleen ebaluazioa egitea.

Adibidez:

- **Jarraipen adierazlea:** arlo eta irakasgai guztietan, ikasleek egiten dituzten idatzizko akatsen zerrenda jasotzeko txantiloia egin da.
- **Lorpen adierazlea:** arlo eta irakasgai guztietan, ikasleek egiten dituzten idatzizko akatsen zerrenda osatu da.
- **Jarraipen adierazlea:** ikasleek mailaka egiten dituzten akatsak zuzentzeko irizpideak adostu dira, ziklo horretako ebaluazio-adierazleak kontutan izanik.
- **Lorpen adierazlea:** aurrez erabakitako ebaluazio-adierazleak erabili dira.